

«Banku kooperatiba izan daiteke aliatu bat; zehazki, Laboral Kutxa»

Ugo Biggeri • Fiare Banca Eticako presidentea

Finantza sistemari etika eta gardentasuna eransteko ari da lanean Biggeri. Laboral Kutxa aliatu posibletzat jo du, baina, dioenez, gizarteak haren sustrai soziala ez du garbi ikusten: «Beste bankuen pare ikusten du».

Lander Muñagorri Garmendia
Bilbo

Finantza sistemari buruz hitz egiten duenean ez ditu hitz eder-
rrak harentzat: ekonomiaren eta politikaren gidariak direla, ez daukatela gardentasunik eta espekulazioan oinarritzen dela haien jarduna. Kritikatu egiten ditu bankuak, baina ez du ahotsik altxatzen. Bare eta lasai hitz egiten du Ugo Biggeri (Florentzia, Italia, 1966) Banca Eticako presidentea. 1990eko hamarkadan, Banca Popolare Etica sortzeko lehen pausoak eman zituen bere sorterrian, eta iaz, Fiare euren proiektuan barneratu, eta Fiare Banca Etica sortu zen. Gardentasuna dute bandera nagusia, eta hori eskatzen die gainerako bankuei ere, «jendeak erabaki dezan ondoren nora joan».

Zer alde dago banku normal baten eta etiko baten artean?

Alde handiena gardentasuna da. Guk, maileguak nori ematen dizkiogun erakusten diogu gure bezeroari, eta kontu guztiak ikusteko moduan jartzen ditugu une oro. Azken finean, banku etikoak galdera bati erantzuten dio: non dago aurreztailearen aurrezki? Nola jakin dezakegu hori ez dela marketin hutsa? Horretarako, gardentasuna oso garrantzitsua da, bezeroek une oro ikus dezaketelako zertan erabiltzen den euren dirua. Guk mundua aldatzeko tresna baliagarri gisa ikusten dugu finantza sistema, bankuetan dagoen aurrezkiak ekonomia biziberritzeko tresna izan beharko lukeelako. Eta ez da horrela. Bankua da ekonomia energia, eta hori blokeatzen bada, dena blokeatzen da. Bestela, ez zuten bankuan eskurik sartuko sartu zuten bezala. Hori ulertzen bada, galdera da: Zein banku nahi dugu? Non jarriko dugu energia? Esan dezakegu finantza txarra dela, baina dena ere ez da txarra.



LUJIS JAUREGIALITZO / ARGAZKI/PRESS

Banku denak ez dira berdinak. Energia non jarri behar luketen galdetzen dutenak dira banku etikoak.

Etika batzorde bat duzue, zertan inbertitu erabakitzeke. Zein da etika? Ikuspegi ezberdinak egon daitezke...

Ezin zaio beldurrik izan ikuspegi ezberdinak egoteari. Kontua da, erantzunean gardena bazara, hori da finantza etikoa. Gero, zuk esan dezakezu ez duzula proiektu bat finantzatu nahi. Nik pentsa dezaket ardo biologikoa finantzatzea ondo dagoela, baina zuk ezetz diozu. Ados, nik esan egiten dizut, eta konforme ez bazaude, beste banku batera joan zaitezke. Bide horretan lan asko dago egiteko, jendeak ohitu behar duela galdetzeraz nora doan bere dirua.

Zer finantzatu erabakitzeke garaian, ordea, marra gorriak izan-gotuzue.

Guretzat gauza asko daude finantzatu ezin direnak: armak, pornografía, tabakoa... Argi daukagu, halaber, ez dugula espekulaziorik egingo. Baina hori prozesu negatibo bat da, ezetz esatea. Prozesu positibo bat nahiago dugu, esanez proiektu biologikoak edo sozialak finantzatzeko ditugula. Hori jakinda, halakoen bila hasten gara. **Proiektu horiek zer arrisku izaten dute?**

Interesgarria da kontu hori. Italian lanean hasi ginenean, hirugarren sektorean hasi ginen inbertitzen batez ere. Italiako bankuak zioen sektore horrek arrisku handiagoa duela enpresan inbertitzeak baino. Hamasei urte geroago zer gertatu da? Banku

etikoa kaudimentsuenetako bat dela, arrisku gutxien duelako. Maileguak non jartzen dituzun ondo begiratzen baduzu eta dirua hartzen duenak helburu argi bat badauka, proiektua ahula izan daiteke, baina porroterako arrisku gutxiago du. Helburu zehatz bat duelako. Hori kontuan hartuta, itzultzen ez den dirua %2 da gure bankuan; Italian, berriz, %10 da. Finantzatzeko ditugun proiektuen arriskua txikiagoa da.

Hori izan da, hain zuzen, finantza krisia lehertzeko arrazoietakoa bat...

Hala da. Galdera egin beharko genuke estatuak zergatik hartu duen parte bankuak erreskatatzeko garaian. Finantza sistema blokeatzeko beldurra duelako hartu du parte. Bankuak salbatu ondoren, gainera, ez da araurik

jarri, eta hori da krisi honek izan duen txarrena. Bankua salbatu ondoren, gizartearen beharrei gehiago erantzun beharko lieke bankuak, herritarrengandik gertuago egon. Inongo herrialdetan ez da hori gertatu. Ekonomiak librea izan behar duela diote, eta hori arazo bat da. Bankuak erreskatatzeko dirua eman zen, baina ez da lan egiteko modua aldatu.

Zer aldatu beharko litzateke?

Bi banku mota daude: inbertsio bankuak eta merkataritza bankuak. Merkataritza bankuak, aurrezki hartu eta mailegatu egiten du. Inbertsio banku batek, bestetik, inbertsio konplexuagoak egin ditzake, espekulatu, besteak beste. 2000ko hamarkadan bi bankuak bananduta zeuden, eta ezin zuten gauza berdina egin. Egun, nahastuta daude, eta, hain zuzen, ho-